URRETXUARRAK SANTA ANASTASIA JAIETAN

·**Elkarrizketa:** Oinetako-konpontzaileak: ofizio zaharra, langile berriak ·**Izerdi patsetan:** Eugenio Ugalde ·**Boteprontoan:** Jexuxmari Alberdi

Herri Aldizkaria

Otamotz

2011ko
iraila
170. alea

etxarre
Etxaniz Arregi
inmobiliaria

www.etxarre.com

Areizaga, 8 behea - URRETXU
Secundino Esnaola, 28 - ZUMARRAGA
Tel.: 943 72 91 22 - Fax: 943 72 92 37

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Azaleko argazkia:** Josu Perez **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Mikel - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Urretxuarrak Santa Anastasia jaietan

10 **Agenda**
Santa Anastasia jaietako egitaraua

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Urtero etortzen al zara erretiratuen eguneko bazkarira?
Zer egiten duzu jai egun honetan?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

19 **Gure gomendioa**

20 **Klik eta klik**
Josu Perez

22 **Elkarrizketa**
Ofizio zaharra, langile berriak

26 **Izerdi patsetan**
Eugenio Ugalde: kirolak aberastuta izerdi egin gabe

28 **Gure aholkuak**

29 **Argazki zaharra**

30 **Boteprontoan**
Jexuxmari Alberdi

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Mailo Aramendi: "Bazkaria prestatuta uzten dut eta jaietako lau egunetan etxera bazkaltzera eta lo egitera bakarrik joaten naiz"

Mailo Aramendik betidanik bizi izan ditu emozio handiz Santa Anastasia jaiak: gazteagotan familiaren Aramendi tabernako barraren atzean eta azken hamarkada hauetan kalean. Etxe Azpi elkarteko lagunekin irteten da kalera eta ekitaldi ia guztiez gozatzen du. "Jaietan irtetea atsegin dut eta oso ondo pasatzen dut. Giroa izugarri atsegin dut eta ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzen dut. Urretxuko jaiak oso onak dira: txistularien kontzertua, gastronomia lehiaketa, Euskal Jaia, Koadrilen Eguna...".

Aramendik oso argi du zein den bere plana. Festez hasieratik bukaeraraino gozatzen du. "Ostiralean Iparragirre plazara joaten gara txupinazoa ikustera eta ondoren pintxo batzuk jaten ditugu jaiei hasiera emateko. Larunbatean, giroaz gozatzeaz gain, gastronomia lehiaketa ikustera joaten gara. Gauean, berriz, txistularien kontzertura joaten gara. Gure koadrilak ez du gastronomia lehiaketan parte hartzen, baina besteek nola presta-tzen dituzten lehiaketako platerak ikustea gustatzen zaigu".

Jaietako egun handian ez du kale egiten, noski. "Karroza desfilean parte hartzen dut dantza taldearekin. Duela urte batzuetatik hona, goizetik baserritarrez jantzita irteten naiz". Astelehenean, berriz, Etxe Azpiko koadrilaren uniformea soinean duela bizi du festa. "Kamiseta horiarekin irteten gara eta elkartean bertan bazkaltzen dugu".

Ez da ausartzen ekitaldi bat azpimarratzen. "Guztiek dute bere xarma. Euskal Jaia, adibidez, tradizioa handikoa da eta oso polita. Jende askok parte hartzen du. Txistularien kontzertua ere asko gustatzen zait, Koadrilen Eguna oso polita da... Guztiaren gainetik giroa atsegin dut eta une oro gozatzen saiatzen naiz".

Mailo Aramendi, zutik eta ezkerretik zazpigarrena, Etxe-Azpi elkarteko lagunekin Urretxuko jaietako astelehenean.

Hala, ostiraletik astelehenera bitartean kalean etxean baino askoz ere ordu gehiago emango ditu. "Lau egunak etxetik kanpo ematen ditut. Bazkaria prestatuta uzten dut eta etxera bazkal-tzera eta lo egitera bakarrik joaten naiz. Ez naiz oso gautxoria eta afalostean, ordu bata edo ordu biak aldera, etxera itzultzen naiz. Eguna gaua baino nahiago dut". Dena den, lehen festa egunez zein gauez bizitzea tokaten zitzaion. Izan ere, bere familiaren Aramendi tabernan lan egin behar izaten zuen. "Gernikako Arbola plazan zegoen eta duela 22 urte itxi genuen".

Ez du uste ordutik festak aldatu direnik. "Urretxuko jaietan beti egon da giro ona. Garai batean zezenketak izaten zirela oroitzen dut, adibidez. Festek beste estilo bat zuten, baina orduan ere giroa primerakoa zen". Hala, ez luke ezer aldatuko. "Festak oso ondo daudela iruditzen zait eta gazteak dira zer nolako festak nahi dituzten erabaki behar dutenak. Niri Santa Anastasiak primerakoak direla iruditzen zait. Egun guztiek dute bere xarma eta ez nuke ezer gehituko edo kenduko. Urretxuar peto-petoa naizenez, herrian antolatzen den guztia primerakoa iruditzen zaidala izango da...".

Beti jaiez izugarri gozatzen duenez, ez du urte bat bereziki gogoratzen. "Giroan murgildu eta lau egunetan primeran pasatzen dut. Urtero. Jaien funtsa burukominak alde batera uztea da eta horretan saiatzen naiz. Baita Sanjoanetan ere. Festa zalea naiz".

Karmele Madina: "Karroza egiten genuenon artean gurea zen neskez osatutako talde bakarra"

Karmele Madinak ere ostiraletik igandera bitartean zer egiten digun kontatu digu. Ostiral arratsaldean ilobekin ateratzen da kalera, buruhandiak eta txupinazoa ikustera. Ondoren koadrilarekin elkartzen da. "Oporretatik bueltan, lagunekin elkartu eta parranda egiteko egun ona da. Denok oso gustura hartzen dugu. Egun horretan, normalean, ez gara kontzertuetara joaten".

Larunbata egun lasaiagoa dela dio. "Euskal Jaiaz goiz goizetik gozatzea gustatzen zaigunez, larunbatean ez dugu parranda handia egiten. Ez dugu gastronomia lehiaketan parte hartzen eta txistularien kontzertua ikusten dut. Hiru bat aldiz ahizpekin abestu dut", aipatu du. Esan bezala, igandeaz goizetik gozatzen dute. "Karroza egiten genuenean eguna koadrilakoekin ematen nuen, baina orain senitartekoekin ateratzen naiz eta gero familia bazkaria izaten dugu. Plazako giroaz gozatzen dugu, Bentazaharreko Mutiko Alaiekin abesten dugu, karrozak ikusi... Ostirala eta igandea ditut egunik gustukoenak, baina igandean ez gara tabernetan horrenbeste ibiltzen: txosnetan egoten gara eta kontzertua ikusten dugu".

Koadrila gehienetan gertatzen den moduan, urteen poderioz Madinaren lagunartean ere astelehenak indarra galdu du. "Jada ez gara bazkarira joaten. Asteartean lanera joan beharra dugunez, astelehena lasaiago hartzen dugu. Kantu Afarira joaten gara eta hortxe bukatzen dira festak".

Karmeleri eta bere lagunei festetan parte hartzea gustatzen zaie eta urte askotan karroza egin zuten. "15 bat urterekin hasi ginen eta hamar bat urtetan jarraian atera ginen desfilean. 50 urteurrenean itzuli ginen. Koadrilan guztiok neskak garela esan beharra dago. 17 gara eta karroza egiten genuenon artean gu ginen neskez osatutako talde bakarra", oroitzen du.

Karmele Madina, makurtuta eskuinean, bere lagunekin karroza lehiaketa irabazi ondoren.

Mugitegiko giroaren falta sumatzen dute, baina... "Denok lanean gaude, batzuk dagoeneko guraso dira... Karroza prestatzeak lan handia ematen du, baina festa barru-barrutik bizitzeko balio du. Orain kanpoan gaudela iruditzen zaigu. Beharbada zer edo zer egin daiteke desfilea bera parte hartzaileagoa izateko. Goizean ahalegina egin da eta ondo atera da". Hala ere, Euskal Jaiarena da oraindik gehien gustatzen zaion eguna. "Egun handia da eta, gainera, niri egunez diren jaiak ere asko gustatzen zaizkit. Festa kalean egiten da eta ez horrenbeste tabernetan, beteko euskal musika entzuten da eta ez betiko abestiak... Horrek asko animatzen du eta oroitzapenak ekartzen ditu".

Karmele Madinari ea festak asko aldatu diren galdetu diogu eta iaz horretaz hitz egin zutela gogoratu du. "Apur bat jaitsita zeudela esan genuen, jende gutxiago ikusten zela kalean. Dena den, gurasoei ere euren garaiko Euskal Jai eguna egungoa baino hobea iruditzen zaie. Nik uste norbera dela aldatzen dena. Hala ere, egia da lehen jaiak parte hartzaileagoak zirela. Gizartea aldatu egin da".

Bukatzeko urterik gogoangarrienari buruz hitz egiteko eskatu diogu. Karroza lehiaketan lehen saria irabazi zutenekoa gogoratu du, noski. "2002an izan zen. Guretzat sekulakoa izan zen. Hiru txerritxo eta otsoa jarri genituen euskaldunok aurrera egiteko ados jarri beharra dugula adierazteko. Ez genuen uste irabaziko genuenik eta sekulak poza hartu genuen".

Migel Lasa: "Euskal gaiei buruzko karrozak egin beharrean umorezkoak egin behar izan genituen"

Migel Lasak ere ez du sekula kale egiten jaietan, nahiz eta gaur egun dagoeneko "ezer berezirik" ez duela egiten dioen. "Koadrilakoak elkartu egiten gara eta egitarauan dagoenaren arabera gauza bat edo beste egiten dugu. Ostiralean kontzertua ikusten dugu eta larunbatean, normalean, afaritxo bat egiten dugu. Igandean Euskal Jaiaz gozatzen dugu eta astelehenean koadrilako bazkaria egiten dugu eta Kantu Afarira joaten gara.

Zubi-Ondo elkarteko kideak dira eta gastronomia lehiaketan, adibidez, ez dute sekula parte hartu. Karrozak, berriz, makina bat egin zituzten. "Gobernadore zibilak Euskal Jaia debekatu zuten garaia bizitzea tokatu zitzaigun. Hori dela eta, euskal gaiei buruzko karrozak egin beharrean umoristikoak egin behar izan genituen".

Ordutik festak asko aldatu direla uste du. "Guk 20 urte genituenean beste era batera ibiltzen ginen. Ordutegiak ezberdinak ziren eta jendeak gehiago parte hartzen zuen. Festa goizean goiz hasten zen eta jendea goizago joaten zen etxera: ordu biak aldera. Kaleko giroa hobea zen: bat kantatzen hasten zen eta denek jarraitzen zioten, txarangek herri guztia atzetik eramaten zuten... Dena den, hori berreskuratzen ari dela uste dut".

Lehen orain baino gehiago edaten zela uste du. "Gaur egun gazteek ez dute diru asko. Gu 15 bat urterekin hasten ginen lanean eta gizontxoak bezala ateratzen ginen kalera. Orain koadrilek denbora asko ematen dute taberna berean eta gu batetik bestera azkarrago joaten ginen.

1978an eta 1979an jaietako sokatira lehiaketa irabazi zuen taldea: J. Murua, L. Arzelus, J. Gorrotxategi, M. Lasa, J.A. Otxoa, J.I. Arostegi eta P. Etxaniz.

Gauerako jende asko ikusten zen beteta. Gai horren inguruak eztabaidak izan ditut". Beste gauza batzuk ere aldatu dira: lehen zezenketak izaten ziren. "Programazioko hainbat ekitaldi inposatu egiten ziren eta koadrilei gainontzekoak zehazteko bakarrik deitzen zitzaien. Inposizio hori ez genuen onartzen. Idazkaria Santanderretik etorritakoa zen eta alkateak baino gehiago agintzen zuen. Udaletxera joan ginen bilera batera eta idazkariak, hasi aurretik, zezenketak dagoeneko antolatuta zeudela esan zuen. Egitaraua denon artean zehaztu behar zela erantzun genuen eta berak ezetz esan zuen. Gazteok alde egin genuen eta jaietako lehen egunean lehergailua jarri zuten zezen plazan. Polizia tabernetan sartu zen jendeari agiriak eskatuz. Hurrengo urtean Udalaren jarrera hobea izan zen eta gazteok indarra hartu genuen".

Egungora itzuliz, Lasa ez da ausartzen jaiak hobetzeko zer egingo lukeen esatera. "Hori gazteen lana da. Zer ekarpen egin dezaket nik? Lehen baino askoz ere gutxiago ateratzen naiz! Nik ez dut ekitaldi gehiagoren beharra ikusten".

Bukatzeko, jaietako une gogoangarri bat aukeratzeko eskatu diogu. "Bi urtetan jarraian sokatira lehiaketa irabazi genuen. Baserritarrak gurekin haserretu egiten ziren. Koldo Sasietak bultzatu zuen lehiaketa eta taldeak 510 kilokoak izan behar ziren. Batzuek jende indartsua hautatzen zuten, baina ez ziren konturatzen zenbat eta lagun gehiago orduan eta hanka gehiago direla. Gure taldean kirolari asko zeuden eta nerbioa genuen", oroitzen du.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

OSABA
taberna

Ondo pasa
Santa Anastasiak!

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ **943 72 54 84**

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ **943 72 02 55**
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tl. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Yarmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - **URRETXU**
☎ 943 72 25 13

TABERNA
Iburreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX
KIROLAK

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

iKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Tel. 943 72 05 62

Javier Ugarte

HARATEGIA

943 72 43 32 (haragia) - 943 72 54 91 (etxea)
Iparragirre, 1 behea - Urretxu

OMTX
TABERNA

the intrepid
fox

Ondo pasa
Santa Anastasiak!

AMSTEL
NAVARRA

Santa Anastasia jaiak 2011

IRAILAK 16, OSTIRALA

-17.00-Domingo de Mendiaratz plazan haurrentzako dantzaldia Luma Gorri taldearekin. Eguraldi .

17.00-Domingo de Mendiaratz plazan haurrentzako dantzaldia Luma Gorri taldearekin. Eguraldi txarra egingo balu, Gernikako Arbola plazako luzapeneko karpan izango litzateke.

-18.00- Mundo Mejor,San Martin eta Pagoeta auzoetan txokolate jana.

-19.00-Hasiera emango zaio buruhandi eta erraldoien ibilaldiari. Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik Iparragirre plazaruntz abiatuko dira.

-19.00-22.00-Akelarre txaranga ibiliko da kaleak girotzen.

-19.30-Iparragirre Balerdi musika tailerra, Lizarriturri txistulari taldea eta buruhandien kalejira.

-20.00-saskibaloi partida Aldiri kiroldegian.

-20.00-Jai Batzordean festen antolaketan parte hartu duten guztientzat luntxa izango da udaletxeko areto nagusian.

-20.30-Iparragirre plazan pregoia irakurri ondoren txupinazoa.Aurtengo pregoilaria Akelarre gastronomia elkartea izango da. Aldi berean,banderak jarriko dira udaletxeko balkoi nagusian. Jarraian Maite zaituztegu brindisa Iparragirre plazan bertan.

Ondoren Akelarre txaranga ibiliko da herriko kaleak girotzen 22.00ak arte.

-22.00-*The Wolves* ikuskizuna Deabru Beltzak taldearekin kaleetan zehar udaletxetik irtenda.

-23.00-Kontzertua txosna gunean.

-23.30-Dantzaldia Akerbeltz taldearekin Gernikako Arbola plazan.

IRAILAK 17, LARUNBATA

-9.30-Abenida berrian Urretxuko baserrietako abelgorrien erakusketari emango zaio hasiera. Secundino Esnaola musika ikastetxeko trikitilariak izango dira bertan giroa alaitzen.

-12.00-13.00-Fusion Folclórica dantza talde mexikarrak Mexikoko dantza tradizionalen oinarrizko pausoak erakutsiko ditu Iparragirre plazan. Parte hartzeko izen ematea kultur etxean.

-11.15-Entzierro txikia Abenidatik Gernikako Arbola plazara. Ondoren zezentxoak eta poniak Gernikako Arbola plazan bertan.

-12.00-Urretxuko buruhandi bandoleroen eta Azkoitiko buruhandien kalejira. Aldiri kiroldegitik irtengo dira Urretxuko kaleetan ibiltzeko. Beraiekin batera Secundino Esnaola musika ikastetxeko trikitilariak ere ibiliko dira.

-12.00-Abenidan bertsolarien saioa: Imanol Lazkano, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe eta Urretxu-Zumarragako bertso eskolako bertsolariak.

-Jarraian ganadu lehiaketaren sari banaketa.

-13.00-Idi probak San Martin-Barrenkaleko probalekuan. Partaideak: Asier Izagirre, Jose Luis Zabaleta eta Josu Intxausti.

-13.00-Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeei ongi etorria udaletxean. Taldeak: Grupo de Danzas de Navarrete (Errioxa), Compañía de Danzas Fusión Folclórica eta Tula de Allendeko Los Potrillos mariatxi taldea (Mexiko).

-15.00-Aspaceren aldeko plater tiraldia Urtatzako zelaian (Legazpi)

-17.00-Ederrenan XXXV. gastronomia lehiaketa hasiko da. Jangaia: untxia ehiztari erara.

-17.30-Domingo de Mendiaratz plazan haur eta gaztetxoentzako Parrandan berbena Deabru Beltzak taldearen eskutik. Eguraldi txarra egingo balu ekintza Gernikako Arbola plazako luzapeneko karpan izango litzateke.

-18.00-Urolatarrak txaranga herriko kaleak alaitzen hasiko da.

-18.00-Idi proben bigarren saioa izango da San Martin-Barrenkaleko probalekuan. Partaideak: Fernando Salegi, Egoitz Armaolea eta Pablo Aranberri.

-18.30-Kaleetan zehar herriarteko folklore jaialdian parte hartuko duten taldeen desfilea.

-19.00-Gernikako Arbola plazan herriarteko folklore jaialdia. Eguraldi txarra egingo balu jaialdia Labeaga aretoan izango litzateke.

-19.30-Idi proben sari banaketa San Martin-Barrenkaleko probalekuan.

-21.00-Epaimahaiak gastronomia lehiaketarako gertatutako platerak dastatu eta gero bi sukaldari irabazleen izenak ezagutuko ditugu. Ondoren sukaldari

eta laguntzaileek gustu handiz triparatuko dute prestatutakoa Ederrena pilotalekuan. Afalondoa alaitzeko Urolatarrak txarangaren doinuak eta gonbidatuen kantuak nahikoa izango dira.

-22.45-Zezensuzkoa eta buruhandi bandoleroen sarraskia Abenidatik irtenda.

-23.00-Iparragirre plazan Urretxuko txistulari taldearen eskutik kontzertua. Eguraldi txarra eginez gero Aldiri kiroldegian izango da. Ondoren Los Potrillos mariatxiak eta Urolatarrak txaranga kalletan ibiliko dira.

-00.30-Txosna gunean kontzertua.

-00.30-Gernikako Arbola plazan dantzaldia Trakets taldearekin.

IRAILAK 18, IGANDEA EUSKAL JAIA

-7.00-Gernikako Arbola plazan zezentxoak.

-10.00-Urretxuko Lizarriturri txistulari taldea, Zumarragako Trikitixa eta Iratzarri taldeko dultzainariekin kalejira.

-Goiz osoan zehar hainbat jarduera izango dira Lekaio Kultur Elkartearen eskutik. Goizeko Euskal Jaialdia: gai monografikoa, artilea.

-11.00- Pagoetan hasi eta Gernikako Arbola plazaraino artilearen gaia jorratzeko beharrezkoa den materiala eramango duten gurdi eta lera baten bueltan kalejira herriko musikari eta dantzariekin. Ordu berean Gernikako Arbola plazan hasiera emango zaie artisauen erakusketari eta Euskal Jaialdiari.

-12.00-Aldiri kiroldegian erraldoiak elkartuko dira Lekaio Kultur Elkartearen eskutik. Honako herri hauetako konpartsak izango ditugu: Amikuze, Azkoitia, Legazpi, Ordizia eta Urretxu. 12.00etatik aurrera kalejiran ibiliko dira kaleak alaitzen Urretxuko Aierbe ahizpak trikitilariek lagunduta.

-12.30-Meza nagusia Martin Deunaren elizan. Meza barruan Mexikoko Fusión folclórica taldeak bere dantzak eskainiko ditu.

-13.00-Iparragirre kalean kantu saioa: Bentazaharreko Mutiko Alaiak.

-14.00-Euskal Jaiaren partaide guztien arteko herri bazkaria Ederrena pilotalekuan.

-17.30-Karrozen ibilaldiaren hasiera.

-18.30-Gernikako Arbola plazan Urretxuko Txalapartarien eta Zuhaitzaren Soinua Kolektiboaren saioa

-19.15-Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola plazan sartzen hasiko dira. Denak plazara heldu ondoren epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.

-22.30-Gernikako Arbola plazan dantzaldia Egan taldearekin.

-23.00-Zezensuzkoa eta buruhandi eta bandoleroen sarraskia Iparragirre plazatik abiatuta.

-23.30-Euskararen aldeko kandela pizatea kantu eta musikarekin batera Gernikako Arbola plazan.

-00.00-Bedaioko Ingurutxoa dantza herrikoia Gernikako Arbola plazan. Ondoren plazan bertan Egan taldearekin festak aurrera egingo du.

-00.00-Txosnetan kontzertua.

IRAILAK 19, ASTELEHENA KOADRILEN EGUNA

-11.00-14.00-Domingo de Mendiaratz plazan haurrentzako parkea. Eguraldi txarra egingo balu ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.

-12.00-Domingo de Mendiaratz plazatik abiatuta moto eta patinete lasterketa. Izen ematea 11.30ean plazan bertan.

-12.00-Gernikako Arbola plazan zezentxoak. Antolatuko diren zezen-jolasetan parte hartzeko aukera izango da. Izen-ematea plazan bertan. Iraunkorrak txarangakoak arituko dira ikuskizuna girotzen. Ondoren txaranga kaleetan zehar ibiliko da koadrilak dantzan jartzen.

-14.30-Herri bazkaria Abenidan. Eguraldi txarra egingo balu bazkaria Ederrena pilotalekuan eta Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo litzateke.

-17.00-Bazkarian erabilitako mahaiak jasoko dira.

-17.00 -20.00-Domingo de Mendiaratz plazan haurrentzako parkea. Eguraldi txarra egingo balu,ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.

-18.00-Gernikako Arbola Plazan koadrilen arteko sokatira. Parte hartzeko izen-ematea 17.30ean hasiko da. Iraunkorrak txaranga ikuskizuna eta kaleak girotzen ibiliko da.

-20.00-Urretxuko Iparragirre Balerdi musika tailerreko bandaren eskutik dantzaldia Gernikako Arbola plazan.

-21.00-Kantu Afaria Abenidan. Eguraldi txarra egiten badu Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo da. Xabier Leteri omenaldia.

IRAILAK 24, LARUNBATA

-Mendi bizikleta proba. Irteera ordua: 16.30. Irteera eta helmuga: Areizaga-Kalebarren plaza. Izen-ematea: doan. Aldez aurretik Goierri elkartean,Aldiri eta Ispilla kiroldegietan eta Urbe dendan. Egunean bertan, irteera baino lehentxeago Areizaga-Kalebarren plazan.

IRAILAK 25, IGANDEA

Elkarte arteko zikloturista. Irteera ordua: 9.00. Irteera eta helmuga: Areizaga-Kalebarren plaza.

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

#despistatuak

Onartzen dugu, egoera nahasi honetan, euskal komunikabideetako lankideak M15 delako horri euskarazko izen bat asmatzen bezain deskolokatuta aurkitzen gara —haserretuak, suminduak, ernegatuak...—. Teknologia berriei jarraiki, #despistatuak gaudela esan genezake. Egia esatera, hasieratik errezelo handiz begiratu izan diogu bat-batekoa izan omen den mugimendu horri. Espainia aldean jendea behingoagatik kalera irtetea, erabilitako mezu eta zenbait esloganetan erakutsitako originaltasunak, —ogi eta txorizoarena esaterako mundiala izan zen— nolabaiteko konplizitatea sortu zigun, baina mugimendua zenbat eta gertuago izan, orduan eta urrutiago sentitu gara eurengandik. Ezin bestela izan eta gure herrietako kaleetan ere izan dugu beraien berri eta ustezko segurtasun faltaren inguruan egindakoak ezin ditugu inondik inora ulertu. Hasteko, dena gaztelera hutsez eta aspaldi ikusi ez genuen Zumárragarekin egin genuen topo euren esku-orri batean. Ezer ez ondoren zetozen «Paraíso para delincuentes», «efecto llamada» eta polizia gehiagoren eskaerarekin. Gai sozialei helduta, Arcelorren izandako bi lan istripuek kezkarik eragin al dute? Enpresa horren tximiniatik abuztu hasierako arratsalde batean irtendako ke gorrixka zer zen inork ba al daki? Gure herrietan zoritxarrez dagoen langabezi mailak ez du sinadura bilketarik merezi? Esandakoa, erabat #despistatuta gaudela eta gustura entzun edo irakurriko genituzke honen inguruko argibideak. PD: Aurrekoarekin zerikusi handirik ez duen arren, gure nahasketa are eta handiagoa izan dadin, ez diote ba Iparragirreri egindako omenaldiaren bazkaria Zumarragako plazan egin. «Para ontze ver nacismos». Festak gertu direla eta tregua txiki bat emango dizuegu, baina deskuiduan kantu afarian errekaren alde honetako ereserkia abestuko balute mesedez norbaitek abisa diezagula.

Urtero etortzen al zara erretiratuen eguneko bazkarira? Zer egiten duzu jai egun honetan?

Arantxa Azkarate

Nire aita jubilatu zenean bera ekartzen nuen eta ondoren ni hasi nintzen etortzen. Egun oso polita da: bazkaria oso ona da, guztiok elkartzen gara, musika izaten da... Urtean behin dantza eta guzti egiten dugu!

Maria Pilar Ormazabal

Urtero etortzen naiz. Dena gustatzen zait: meza, bazkaria, dantza... Oso ondo dagoela iruditzen zait, ez nuke ezer aldatuko. Urretxuko Udalak egiten duen lana eskertu beharra dagoela uste dut.

Jorge Fernandez eta Miriam Garcia

Lehen aldiz etorri gara. Izan ere, kubatarrak gara eta duela 14 hilabete etorri ginen Urretxura, semearen etxera. Bera duela zazpi urte etorri zen. Duela zortzi urte erretiratu nintzen eta denbora horretan guztian ez digute antzerako ezer antolatu Kuban. Festa asko gustatu zait. Datorren urtean berriz etorriko gara, gonbidatzen bagaituzte behintzat.

Ines La Rocha

Urtero parte hartzen dut Urretxuko Udalak guretzat antolatzen dituen ekitaldietan. Janaria bikaina da eta giroa zoragarria. Dena den, ez dut dantza egiteko ohiturarik: dantza asko egin dut nire bizitzan eta dagoeneko zahartuta nago horretarako.

bota bertsoa!

Ekainaren 26an Lizarriturrin kantatutako bertsoak. Urretxuko jaietako txistularien kontzertuan berriz abestuko dira.

Gaia: Lizarriturriren 75. urteurrena

Doinua: Txepetxarena

Gorka Azkarate

Agur bero bat Lizarriturri
txoko honetan zaudena,
alaitasunez ospatzen degu
gaur zure urteurrena.
Nork daki zenbat mendigoizale
urte luzetan barrena,
beti bezela horren emankor
ur fresko eta gardena
Irimorako bidean dagon
atsedentoki onena.

Malda gogorrak arnasestuka
maiz gaitu hona ekarri,
baina hemendik inortxo ere
ez da joaten egarri.
Gaurkoan ere, nahiz bero egin
emariz ez dago urri,
aurrerantzean ere honaino
etorriko gera sarri,
orain artean bezela zaindu
gaitzazu Lizarriturri.

iritziz iritzi

Ibon Garmendia

Orekarik ba al dugu?

Gure herriotan paseatzea eta bertako giroan murgiltzea gogoko dut. Ederra eta zaindu beharrekoa iruditzen zait asteburuetako arratsetan izaten den kale-giroa eta sumatzen dudan lagunartea. Nk uste nuen inguruko herri guztietan horrela izaten zela, baina hainbat kasu ezagutu ditut eta toki guztietan horrela ez dela izaten esan dezaket. Horrelako gizarte eta nukleo batean bizitzeak nire ustez solidaritatea handitzen du, herri ekimenak sustatzeko balio du eta azken batean herri bati bizia emateko balio du. Gertutasuna sortzen da denon artean eta dinamika horrek egiten du niretzat herri batean gustura bizitzeko baldintza nagusienetako bat. Gauza eder eta positiboak dituen bezala negatiboak ere baditu. Kalean ibiltzeak zurrumurru eta jardunaren harra bereziki pizten dio askori eta gehienetan amorragarria egiten zait. Zergatik? Normalean egurra emateko abilezia izaten dugulako. Honek zera egin du edota besteak hau esan du, ikusi hango hark ze itxura duen etab… Nire ustez bizitza honetan txaloak eta txistuak orekatuta joan behar dute eta gaizki eginak suntsitzen diren moduan, ondo eginak aitortzen ikasi behar dugu. Askotan aurrera pausua ematen duen horri informazio osoa izan gabe egurra emateko prest izaten gara. Irakurleari bere asmoak eta proiektuak zeintzuk diren galdetuko nioke eta horretarako urratsak ematera animatu. Eraikitzaile izatea suntsitzailea izatea baino zailagoa dela badakigu, baina ez al gaitu horrek aurrera begira hobeak egiten?

Urretxuko
jaiak
2011
Santa Anastasia

Irailak
16-19
Euskal Jaia 18 Irailak IGANDEA

Urretxuko udala
www.urretxu.net

HARATEGIA URDAITEGIA

✆943 72 00 61

Leturiatarren enparantza, 2

aramburutamilleta@euskalnet.net

ZUMARRAGA

Berezitasunak

- Urtez azpiko txahalen saiheski eta txuletak
- Aurrez prestaturiko jakiak eta esnekiak
- Esneko arkumea
- Bertako gazta eta kontserbak
- Aukera eta dasta itzazu gure ardo, txakolin zein sagardoak

Etxerako zerbitzua

Ondo pasa Santa Anastasia jaiak!

Barceló BIDAIAK

-Mediterraneoan zehar bidaia
-Costa Serena edo Costa Concordia ontzietan
-Irailean-azaroan
-7 gau
-Gosaria, bazkaria eta afaria barne
-Ontziratzea, Bartzelonan

421 eurotik aurrera (baldintzak kontsultatu)

Labeaga 33, G - URRETXU - 943 72 50 99

ENDAIA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Gure Ogia

Sagastitxipi, 4
Urretxu
Tel.: 943 72 02 11
Fax.: 943 72 04 11

GAINZURI Ikastetxea
URRETXU - ZUMARRAGA

Tel.-fax: 943 72 12 14
www.gainzuri.net
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Labeaga, 18 - Urretxu

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
www.iparragirre.net
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Urretxu eta Zumarragako eskola publikoak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!



Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik

Informazioa:
943 72 33 10

euskaltegi@uzue.e.telefonica.net



3 Mariak

Arantxa Urretabizkaia

Hamabi urtez nobelarik argitaratu gabe egon ondoren hiru emakume eder eta indartsu aurkeztu dizkigu Urretabizkaiak lan honetan. 80 urte inguruko hiru Mariak, Txuri, Gorri eta Marihandi ezizenez ezagunak, gaztetan gerrak eta gero bizitzak banandu ditu. Istorioaren ahotsa den Txuri alargun geratzeak berriro aurrez aurre jarriko ditu. Zahartzaroaren alde tradizionala albo batean geratzen da. Dagoeneko dena egina dagoela uste den adin horretan etorkizuna eraiki eta maitatu daitekeela erakusten saiatzen da Urretabizkaia. Eta lortu du. Prosa lasaia, leuna, argia eta garbia erabiliz edonork desiratuko lukeen zahar garai gozo eta koloretsua oparitzen digu. Zahartzea, beharbada, gaztaroari patxadaz agur esan eta arnas berriak asmatzea izan daitekeelako. *3 Mariak*, edo zahartzaroaren aldarrikapena.

Araiz Padrón

The big come up (2002)

The black eyes

Akrongo (Ohio, AEB) taldearen aurreneko lana. Adituen arabera blues rock-aren dekonstrukzioa egiten dute Dan Auerbackek (a zer nolako ahotsa...) eta Patrick Carneyk. Ez dakit... Badakit, ordea, haien doinuak barru-barruraino iristen zaizkidala. Gordinak direla. Minimalismo horrek baduela benetakotik zerbait. Sofistikaziorik gabeko grabaketak egiten dituzte, baina zeinen ederra, zeinen gizatiarra haien soinua. Kritikariak zur eta lur geratu ziren estreinako diskoarekin. Normala... Herdoildutako riff horiek, pixkanaka harrapatzen zaituen oinarri erritmiko hori... *I'll be your man* inoiz egin den abesti beroenetakoa iruditzen zait. *The Break* funk beltzenarekin zipriztindu zuten. Lennon eta McCartney, berriz, pozik egongo dira *She Said, She Said*-ren moldaketarekin. Disko kiskalgarri bateko hiru ale baino ez.

Igor Susaeta



Valor de ley

Joel eta Ethan Coen

Mattie Rossek 14 urterekin aita galdu du eta Fort Smith herrira joan da aita hil zuen gizonaren bila. Chaney urkatu arte haren atzetik joateko asmoa du. Hori lortzeko herriko polizia buru zakarrarengana jo du, Rooster Cogburn zurruteroarengana. Baina Chaney harrapatzearen truke jaso daitekeen diruak ez du Cogburn bakarrik tentatu, LaBoeuf izeneko Texasko rangerra ere horretan dabil. Hiru pertsonaiek ehizaldian topo egingo dute. Charles Portisen *True Grit* eleberrian oinarritutako bigarren filma da hau. Lehena Henry Hathawayk egin zuen. Film hartan lortu zuen John Wayne handiak, Rooster Cogburni bizia emanez, bere Oscar bakarra. Coen anaien bertsio honek 10 izendapen jaso zituen 2011ko Oscar sarietan. Irailaren 30ean, 22.15ean, Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea



Orhipean festa Otsagin. Urtean behin Nafarroako herri honetako bizilagunek mende bat atzera egiten dute XX. mende hasierako bizimodua nolakoa zen gogorazteko.

Josu Perez

Ofizio zaharra, langile berriak

2010eko otsailean Jose Antonio Murua zapata-konpontzaile urretxuarrari elkarrizketa egin genion eta kezkatuta ageri zen berak erretiroa hartu ondoren Urretxu eta Zumarraga zapata-konpontzailerik gabe gelditukо zirelako. Zorionez ez da halakorik gertatu. Muruak 30-35 urteko bikote batentzat lan aproposa dela esan zuen, baina 50 urteko aitak eta 21 urteko semeak hartu dute erreleboa: Jose Mari eta Ekain Nestarrek. Muruarekin eta bere emaztearekin ikasi dute ofizioa eta lehen lan astearen ondoren lauekin hitz egin genuen.

Jose Antonio, Pili, Ekain eta Jose Mari aita-semeen lokalean.

Nolatan erabaki zenuten lan honetan hastea?

Jose Mari (J.M.): Langabezian gelditu nintzen eta lagun batek, Julianek, Joseanekin harremanetan jartzea gomendatu zidan. Josean bizilaguna dut eta Julianek erretiratzeko zorian zela esan zidan. Iazko irailean berarengana joan nintzen, langabezian gelditu nintzela esan nion eta ea ofizioa irakatsiko zidan galdetu nion. Lokala topatzen banuen eta makineria erosten banuen irakatsiko zidala esan zidan. Izan ere, bere negozioa bikote batek hartu behar zuen. Handik egun batzuetara bikoteak atzera egin zuela esan zidan. Ekainekin hitz egin nuen, baiezkoa eman zidan eta aurrera egitea erabaki genuen.

Jose Mari Nestar: "Nik burdinarekin lan egin dut orain arte eta hemen tentu handiagorekin lan egin behar da"

Zer moduzkoa izan da ikasketa prozesua?

J.M.: Oso ona. Josean oso irakasle ona da. Ez du akats bat bera ere barkatzen. Eskola zaharrekoa da eta berarekin asko ikasi dugu. Jenio bizikoa dela esan zidan, baina niri ez zitzaidan hori iruditu: bere buruarekin ere oso zorrotza da. Ikasketa prozesua luzea izan da, zazpi hilabete iraun du, baina aste honetan ikasi dugun guztia beharrezkoa dela konturatu gara. Are gehiago, oraindik badugu zer ikasi.



Jose Antonjok eta Pilik Jose Mariri eta Ekaini oparitutako diplomak.

Zer iruditu zaizue gogorrena?

J.M.: Nik burdinarekin lan egin dut orain arte eta hemen tentu handiagorekin lan egin behar da. Han burdina esmerilaren kontra bultzatzen da eta hemen apenas ukitu behar da esmerila. Hori izan da gogorrena niretzat. Moztea eta itsastea ez zait batere zaila egin. Semeari dagokionez, denok txundituta gauzka. Izan ere, josteko makinarekin primeran moldatzen da. Sekula ez duela jostorratz bat eskuartean izan eta bizitza osoa horretan daramala dirudi. Dendara etorri diren emakumeak zur eta lur utzi ditu.

Ekain Nestar (E.N.): Oso gustura nabil. Nire lana jostea da: zapatilak, arropa, motxilen kremailerak... Aita ere oso ondo moldatzen ari da. Ez nuen uste horren ondo moldatuko zenik.

Lana banatu egin duzue, beraz.

J.M.: Eurek lan egiten zuten moduan lan egiten dugu. Nik Joseanek egiten zuen lana egiten dut eta Ekainek Pilik egiten zuena. Are gehiago, ikastaroa bukatu genuenean Joseanek niri diploma eman zidan eta Pilik Ekaini. Sekulako barreak egin genituen. Kerosera eraman ditugu markoan ipintzera eta dendan jarri behar ditugu. Biok bi lanak ikasi nahi genituen, baina ez dugu horretarako behar adina denbora izan. Neguan neguko zapatak konpontzen ikasi genuen eta udan udakoak. Orain negukoak ekarriko dizkigute eta ikasitakoa ahaztu ez izana espero dut. Dena den, alde horretatik ez dugu inongo arazorik: Josean laguntzeko prest dut eta aste honetan goizero-goizero etorri da lanbide berrian zer moduz moldatzen ginen ikustera.

Lagunek eta senitartekoek Jose Antonio eta Piliri eskainitako omenaldian ateratako argazkia.

Zer diote bezeroek?

J.M.: Animoak eman dizkigute. Oraindik ezin dugu Joseanek eta Pilik bezain ondo eta azkar lan egin, baina hemendik hilabete batzuetara ehuneko ehunean aritzea espero dut. Joseanek zapata eskuartean hartu bezain pronto badaki zer egin behar duen eta nik pentsatu beharra dut.

Zer iruditu zaizue gogorrena?

J.M.: Oraindik ez nago galdera horri erantzuteko moduan. Egunak motz gelditzen zaizkigu. Lehen aste hau ziztu bizian pasatu zaigu.

Jose Antonio, zergatik erabaki duzu negozioa uztea?

Jose Antonio Murua (J.A.M.): Lehenago uzteko asmoa nuen, baina Jose Marik eta Ekainek ofizioa irakasteko eskatu zidaten. Erretiroa apur bat atzeratzeak merezi izan du: Urretxuk oinetako-konpontzailea izaten jarraitzen du. Horri esker erretiroa poz handiagoarekin hartu dut.

Zer moduz moldatu dira aita-semeak?

J.A.M.: Lehen aste hau oso garrantzitsua zen eta inongo arazorik gabe pasatu dute. Martxa hartu dute. Ofizioa denborarekin ikasten da. Gu ere urduri hasi ginen, baina aurrera egin genuen. Gainera, arazoren bat badute badakite laguntzeko prest gaudela. Ez dute aurrera egiteko inongo arazorik izango.

J.M.: Oso ondo ari dira portatzen gurekin. Joseanek eta Pilik bezero oso jatorrak zituzten.

J.A.M.: Hemengo bezeria oso ondo irakatsita dago. Gainera, beti eskatu diguten guztia egiten saiatu gara.

Jose Mariri eta Ekaini irakasten ari zinetela, hasi zineteneko oroitzapenak burura etorriko zitzaizkizuen...

J.A.M.: Hala da. Hastapenak ez ditut ahazten. Urriaren 15 batean hasi ginen lokal txiki hartan. Hau lokal egokiagoa da, baina garai hartan ez zegoen besterik. Gainera, orduan makina gutxiago genituen. Ez genuen prentsarik eta dena mailuarekin egiten genuen. Egun itsasteko makinak lana asko errazten du. Gainera, garai hartan zazpi oinetako-konpontzaile ginen Urretxu eta Zumarragan. Jose Mariri eta Ekaini batzuetan lanak gain hartuko die eta aparteko orduak sartu beharko dituzte edo lan zehatz batzuk baztertu. Lehia asko duzunean denetik egiten duzu.

Pili (P.): Lehia handia zegoenean eta gero ere bai... Denetik egin dugu.

Jose Antonio Murua: "Urretxuk konpontzailea izaten jarraitzen du eta horri esker erretiroa poz handiagoarekin hartu dut"

Aholku berezirik eman al diezue?

J.A.M.: Bezeria ondo zaindu dezatela. Bestalde, lehen lana zapata ondo begiratzea da. Izan ere, zapata askok, berriak izan arren, akatsak izaten dituzte. Lanean hasi aurretik zapata ondo begiratzen ez bada lana bukatutakoan zalantzak sor daitezke: "aiba, hemen arrastoa du eta! Nik egin ote diot? Hala ekarri ote dute?". Bista ona behar da, baina lan honetan pozak nahigabeak baino gehiago dira.

P.: Bukatzeko, urte hauetako guztietako bezeroei eskerrak eman nahi dizkiegu.

EZKURRA

GOZOTEGIA
URRETXU

Ondo pasa Santa Anastasia jaiak!

BERGARA
SUKALDEAK AROZTEGIA

300 metro koadroko erakusketa berria.

Egongelak - logelak - gazteentzako logelak
sofak - armairuak - koltxoiak - osagarriak

Matxinporta, 10 - Urretxu
943 723 689 / 649 846 369
www.muebleslbergara.com

ASESORIA
Larrain

Labeaga, 54 tarteko solairua G
URRETXU
943 03 63 24

Jai zoriontsuak izan!

urrats
PODOLOGIA ZENTROA
☎ 943 72 52 23
Labeaga, 31 behea - URRETXU

entzun
AUDIFONOAK

entzumenaren osasun zentroa

Jon Legaristi
AUDIOPROTESISTA

☎ 943 72 65 91
Labeaga, 58 1. lokala
URRETXU
entzun@telefonica.net
www.entzunaudifonoak.com

INFORLINE

INFORMATIKA
IKASTAROAK

- 8-14 Urte
- Ikastaro pertsonalizatuak
- Aukeratu zure ordutegia
- Mekanografia
- Ofimatika Ikasi
- Argazki eta Bideo Digitala

Labeaga 58 Urretxu ☎ 943 724121 Matrikulazio Epea Zabalik

zona zero

HARGOR
ARTISAUTZA-ARROPA-OPARIAK
Nekolalde, 1 - URRETXU - ☎ 943 72 56 58

FLORIDA
IOBERRA

Jai zoriontsuak izan!

uri
leire santillán
☎ 943 72 44 64
Labeaga, 37 - URRETXU
La Bretxa merkataritza-gunea - DONOSTIA
leire@leiresantillan.com
www.leiresantillan.com
facebook: leire santillán

Haratiegia - Urdaitegia
PAKI ETA JOSETXO
Labeaga, 14 URRETXU
943 72 42 97 685 75 15 12
Ondo pasa festetan!

izantek
INGENIARITZA ZERBITZUA
☎ 657 717 900 - 943 03 66 86
Labeaga 56-58, behea URRETXU

ODRIOZOLA
AUTOESKOLA
☎ 943 72 05 05
Gernikako Arbola plaza, 1 - URRETXU

Txilarra
produktu ekologikoak
Belaustegi plaza (Euskaltegi ondoan)
URRETXU

IRATI
kafetegia
Labeaga, 52 - URRETXU
✆ 943 72 40 25

CARPINTERIA METALICA
Eutsi
CRISTALERIA
Matxinporta, 45 (Azkoitira bidean)
URRETXU
Tlf: 943 72 39 25 - 943 72 22 84
Fax: 943 72 22 85

GOIKO KALE
Ogitartekoak eta razioak

NATURHOUSE
Kontsulta doan
Labeaga, 5 URRETXU

LAKET
~~25 URTE~~
URRETXU

Kirolak aberastuta, izerdi tanta bakar bat ere bota gabe

Eugenio Ugalde urretxuarrak 30.000 euro irabazi ditu bere kirol zaletasunari esker, izerdi tanta bakar bat ere isuri gabe: duela aste batzuk Zumarragako Urola tabernako Kirol Jokoa makinan hiru euroko apustua jokatu zuen eta handik gutxira aipatutako diru horren guztiaren jabe zen.

Eugenio Ugalde 30.000 euroko saria eman dion makinaren ondoan.

Eugenio Ugalde *Flus* umetatik da kirolzalea. "Ez dut kirolik egiten, baina ia denak ikusten ditut. Beste batzuek beste zaletasun batzuk dituzten bezala niri irratian eta telebistan kirol emanaldiak jarraitzea gustatzen zait". Gehien atsegin duen kirola futbola da eta bere talde kuttuna Bilboko Athletic. Jokalariei dagokienez, Julen Guerrero du gustuko. "Jendearekin oso ondo portatu da beti", azaldu du.

Pagoeta eta Urola tabernetan jokatzen du eta beti apusturen bat poltsikoan eramatea gustatzen zaio

Telebistan ahal dituen partida guztiak ikusten ditu eta urtean bizpahirutan San Mamesera joaten da. "Partidak etxean eta tabernan ikusten ditut. Normalean hemengo ligakoak bakarrik. Zuzeneko partidei dagokienez, onetara bakarrik joaten naiz: Athleticek Real Madril, Bartzelona edo Realaren aurka jokatzen dituenetara".

Saskibaloia eta pilota ere atsegin ditu. Baskonia eta Estudiantes zalea da, baina Ivanovic gasteiztarren entrenatzailea ez du gustuko. Pilotari dagokionez, Titin III asko gustatzen zaio. "Jada ez du lehengo sasoia, baina oraindik punta-puntakoek bakarrik irabazten diote. Dena ematen du beti. San Mamesera ez ezik pilota partidak ikustera ere joaten naiz". Gure artean ezezagunak diren kirol batzuk ere atsegin ditu. "Billarraren antzekoa den snuckerra, adibidez, gustuko dut. Izan ere, lehen billarrean jokatzen nuen", aipatu du urretxuarrak.

Eugenio Ugalde dagoeneko kirol aditua da eta bere jakituriari esker hainbat apustu irabazi ditu. Garai batean kinielak egiten zituen eta egun Kirol Jokoa eta Reta makinetan ere jokatzen du. Dagoeneko hiru sari handi lortu ditu aurten. Azken aldian beste estatu batzuetako partiden emaitzak ere asmatu zituen, baina argi utzi nahi du ez dela nazioarteko futbolean aditua. "Logikoak diren emaitzak jartzen ditut edo gustukoak ditudan taldeen alde egiten dut. Jendeak apustuak egiteko Internet erabiltzen dudan galdetzen dit, baina ordenagailurik ere ez dut".

Pagoeta eta Urola tabernetan jokatzen du. Poltsikoan beti apusturen bat eramatea gustatzen zaio. "Ia egunero jokatzen dut. Poltsikoan apusturen bat edukitzea gustatzen zait, begiratzeko. Apustu horretako partida guztiak jokatu direnean beste bat egiten dut", azaldu du Ugaldek.

Jokoa ez da errenta eta berak ere irabazi duena baino gehiago jokatu duela dio. "Inoiz nire apustuak kopiatu egin behar dizkidatela esan didate. Ondo iruditzen zait, baina kopiatu ditzatele dirurik ematen ez didatenak ere! Diru gutxirekin asko irabazten saiatzen naiz eta horrelakoetan zaila da asmatzea. Gainera, ogasunak irabazitakoaren zati handi bat kenduko didala esan didate. Galdutakoaren zati bat ere itzuli diezadatela! Makinek ez dute horren berri ematen eta gaizki iruditzen zait", amaitu du urretxuarrak.

"Ogasunak irabazitakoaren zati handi bat kenduko dit: galdutakoaren zati bat itzuli diezadatela orduan!"



Alex Areizaga

Informatika

Adieraz zaitez, baina buruarekin

Sareak mundurako ateak ireki dizkigu eta gure ateak ere ireki dizkio munduari. Internetek aukera asko eskaintzen ditu adierazteko, horien artean sare sozialak. Duela gutxi frogatu dute sare sozial hauek alkoholaren adinako menpekotasuna sortzen dutela (Gara, uztailak 28). Eta 15 urtetik beherakoek ere erabiltzen dituzte, eta nola erabili gainera. Askok euren bizitza saltzen diote munduari, edo bueno, oparitu, inork ezagutzen ez dituen baldintzetan (irakurri al du norbaitek *parrafada*?). Egunero, uneoro egiten dutena kontatzen diete euren lagunei, lagun horiekin oraintxe egon direla pentsatu gabe, eta igarotakoak balioa argazkia mundu guztiari erakustean hartzen duela pentsatuz. Sare sozialek aukerak eskaintzen dituzte, baina buruarekin erabiltzen ikasi behar da. Eta ikasi diot, dena bezala. Ni, behintzat, aurkitu nahi nauenak gaztetxean aurkituko nau. P.D: Gero igoko dut argazkia facefullera.

Izaro Soraluze

Osasuna

Perretxikoen intoxikazioak

Perretxikoen intoxikazioak uste baino ugariagoak dira. Gehienetan, %90etan, ez dute eragin arriskutsurik izaten pertsona osasuntsuetan eta egun pare batean gaixoa ondo jartzen da. Hala ere, noizean behin kasu arriskutsuak ere badira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da ospitalean zein perretxiko jan den ahalik eta azkarren jakitea eman beharreko tratamendua oso ezberdina baita. Intoxikazioak bi taldetan banatzen dira sintomak agertzen hasten diren denboraren arabera. Sortasun aldia 6 ordutik beherakoa duten pozoitzeak: sintoma arinak izaten dira, jan ondorengo 30 minutu eta 3-4 ordutan agertzen dira. Goragalea, sabeleko mina eta beherakoa. Buruko mina, ondoeza eta izerdi hotza ere eduki daitezke, gehienetan sintoma hauek 12-48 ordutan desagertzen dira. Sortasun aldia luzea dutenak: sintomak 9-15 ordutan agertzen dira eta larriagoak dira. Arazoa azken hauetan izaten da, sintomak egunetara sentitzen baitira eta ondoeza zerk eragin duen jakitea zaila baita. Udazkenaren atarian arreta handia izatea aholkatzen da.

1996

Euskal Jaia

Horra hor 1996ko Euskal Jaiko karroza desfilean Lurra dantza taldeko kideei ateratako argazkia. Ezkerretik eskuinera: Egoitz Ostoaga, Jose Mari Tena, Jon Izagirre eta Jon Urrestilla.

Jexuxmari Alberdi

Jexuxmari Alberdik lehen ikasketak Labeagako mojetan eta La Salle ikastetxean egin zituen. Ondoren institutura joan zen eta, azkenik, Ingeniaritza Tekniko Industriala egin zuen Donostian: Amarako peritu eskolan. Lehenengo langintza Urretxuko Ikastolan izan zuen, ordezko irakasle gisa. Hortik aurrera, Urretxuko udaletxean aritu da: itzultzaile eta euskara teknikari. "Lan polita da euskara teknikariarena: hartu-eman asko izateko aukera ematen du: kirolariekin, merkatariekin, kultur taldeetako jendearekin, ikastetxeetako ordezkariekin, etorkinekin...", azaldu du.

Zer izan nahi zenuen umetan?
Txirrindularia.
Aisialdian zer egitea atsegin duzu?
Aisialdian bizikletan ibiltzea dut gustuko: toki berriak ezagutu ...
Bizitzeko toki bat?
Urretxu.
Nola bizi dituzu Santa Anastasia jaiak?
Lagun giroan pasatzen ditut. Familiarekin eta koadrilarekin bazkariren bat edo beste, afariren bat, musika kontzertuak en-tzun, karrozak ikusi, abestu... denerako astia izaten da.
Santa Anastasiak ala San Joanak?
Santa Anastasiak, jai egun gehiago direlako; baina San Joanetan ere giro ederra izaten da. Nik behintzat oso oroitzapen onak ditut.
Zein duzu Santa Anastasietako ekitaldi kuttuna?
Txistulari jaialdia eta igandeko goizeko artisauen erakusketa (eta horren inguruko giroa).
Zer dago faltan eta zer soberan Urretxuko jaietan?
Urretxuko jaietan uste dut ez dagoela ezer soberan; faltan ere ez dut ezer berezirik ikusten.
Zeintzuk dira zure lanbidearen alde onak eta txarrak?
Euskararen erabilera areagotzeko egitasmo bat martxan jartzen dugunean ilusio handiarekin abiatzen gara eta hori ona da. Baina, zoritxarrez, beti ez ditugu nahi adinako emaitzak lortzen eta horrek batzuetan frustrazio puntu bat sentiarazten digu.
Ilehoriak ala beltzaranak?
Beltzaranak.
Egindako azken oparia?
Telefono mugikorra.
Eta jasotakoa?
Azken oporretako bidaia.
Data bat?
Uztailaren 21a.
Mutil eta neska izen bana?
Elene eta Jon(e).
Zein egunkari irakurtzen duzu?
Goierriko Hitza, *Berria* eta *DV*.
Gustuko telebista saioa?
ETBko informatiboak.
Bereziki gorroto duzuna?
Kontua eta zikinkeria erabiltzen dituzten horiek guztiak ezin ditut ikusi.
Pelikula bat?
El especialista (Sharon Stone eta Sylvester Stallone).
Liburu bat?
Bi anai (Bernardo Atxaga).
Soinu bat?
Biolinarena.
Usain bat?
Txokolate egin berriarena.
Janari bat?
Ravioli entsalada.
Ura ala...
Ura, ardoa, garagardoa, gin-tonika... guztiak bere neurrian.

iKER

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

ZUM Edizioak